

## 8. FUNTSEZKO JARDUERAK

Atal honetan, enpresa batek egin behar dituen funtsezko jarduerak, bere negozio-ereduak funtziona dezan egiaztatzen da. Gure kasuan, egin behar ditugun funtsezko jarduerak honako hauek dira: taldean lan ona egitea, denbora aprobetxatzea eta saltzera jartzerako orduan, marketin ona egitea. Marketin ona egitea oso garrantzitsua da, bezeroak erakarri beharko dituelako eta hauek konbentzitura egon beharko direlako. Hortaz, funtsean honako hauek dira: ekoizpena, arazoak konpontzea eta plataforma edo Sareko jarduerak gauzatzea.



Enpresa batean arazoak konpontzeak oso garrantzitsua dira negozioa sendotzea eta eguneratzea helburu duen bidean. Hainbat arazo izan daitezke, eta bakoitzak bere estrategiak izan behar ditu. Hona emen guretzat arazo bat konpontzeko eman daitezken urrats edo estrategia batzuk: hasteko, enpresaren helburuak eta estrategiak egiaztatzea; ondoren, Enpresaren inguruan egindako analisi situazionala lagungo du arazoak identifikatzen; aholkularitza profesionalei atxikitzea, atal honetan aholkulariak egokitu eta beren gomendioak hartu beharko dira, horrela enpresa hobetzeko bideak aurkitu ahal izango dira. Bestalde arazoak saihesteko hainbat puntu garatu ditugu, azken batean enpresan arazo bat sortatzen bada, negozio guztia bertan behera bota dezake. Horietako saihespen bat, lehenik eta behi enpresa bat sortzerakoan, nahi diren helburuak gauzatu behar dira, azken batean helburu guztiak eta estrategiak gauzatuak, negoziok egitea errazagoa izango da eta arazoak saihesteko baliagarria da.

Bestalde, beste funtsezko jarduera bat ekoizpena da, gure kasuan aplikazio bat sortu dugu, etxeetako makina guztiekin konektatzen da eta etxetik kanpo egotean gailu horiek piztu edo itzaltzeko aukera ematen du, hau da, diseinu pertsonalizatu bat gauzatu dugu. Gure kasuan, ekoizpen atalean, manufaktura enpresa denez, hau da aplikazio bat diseinatu dugunez, oso garrantzitsua da enpresaren webgunea eta on line dendak kudeatzeko, mantentzeko eta sustatzeko jarduerak ongi azalduta egon behar dira.

Honekin guztiarekin, esan dezakegu, funtsezko jarduerak egokituta egon behar direla enpresa bat ongi funtziona dezan. Gure kasuan, funtsezko jarduera guztiak gauzatu ditugu, eta horrekin dakarren arazoak saihesteko puntuak ere jorrotuta ditugu. Aldiz, arazoak sortzen baldin bazaizkigu, soluzioak izateko puntuak ere gauzatu ditugu.